

Transmisorearen izen-abizenak: Rosario Mitxelena.

Adina: 73 urte.

Herria: Arantza, Iturtzenborda baserria.

Gaia: Artoa eta iratzearen garrantzia baserrian.

Oharra: Transkripzioan ahoskera eta hizkera errespetatu dugu.

#### TRANSKRIPZIOA:

*Aurkezpena:* Emen gaude Iturtzenbordako baserrin ta uain solastu biar gara Maria Rosariokin artuari buruz.

*Galdera:* Ze tresnekin moldatzen zuten lurra?

*Rosario:* Tresna?, beik buztarin lotu ta gero aria. Gero gorotzak ateri, ta gero goldatu. Gero txarrantxa pasatu; gero esi zarra pasatu; gero aria, aria pasatu.

*Galdera:* Noiz ereitten zuten artua ta noiz billu?

*Rosario:* Maiatzin ereitten ginun artua eta urrirun billu, urrirun ondarrin.

*Galdera:* Nola ereitten zuten artua?

*Rosario:* Ereitten genun artua dena eskuz, zatten zen marka, lau ortz zatten zittun eta arekin markatu ta gero zulatu itten zen ta botatzen zen arto aziya; bi lerrotikan bein botatzen zen illarra ta bi zulotikan bein illarra botatzen zen, gero tapatu.

*Galdera:* Noiz yorratzen zuten artua?

*Rosario:* Artua San Juaniko, lemiziko yorra ematten ginion San Juaniko, lemiziko yorra ta bakandu egitten ginun San Juaniko.

*Galdera:* Artoburuz gain bertze probetxurik bazuen?

*Rosario:* Bai, bai. Bazun probetxua. Lastua, kentzen ginion lastua, dena beiantzat, bazkatko ta gero denak txirrista egitten gintun denak, bazkatko beyantzat.

*Galdera:* Arto guziya saldu do itxin gelditzen zuten?

*Rosario:* Artua dena itxin gelditzen genun, azindantzat ta guretzat, opilak yatko, gionek ere arto ori yaten genun ta beno iriña ein ta.

*Galdera:* Nola erautten zuten artua errotara?

*Rosario:* Astukin erautten tzen. Bi zako paratu bi aldetan ogietabosna kilo do ogeitamarna kilokuk edo, orrela. Bi zako eramin ta gero ek berriz karri ta. Akautu miño lentxigotikan erauten genun beti, zertik etzen astirik izatten bertzela eraun ta segidan ekartzko.

*Galdera:* Terreno aundia edo ttikiak ereitten zuten?

*Rosario:* Bueno, naiko terreno ordun eskuz itten baiginttun. Denak, eskuz einbarrak izaten ziren denak.

*Galdera:* Artotikan ze probetxu atetzen zuten artoburuz gain?

*Rosario:* Artotikan probetxua ateri artoburuz gañin azkarki, azkarki. Botatzen zen arto tartin aziya, egitten tzen gero arbiya, txabusa, zarta ta oik denak bazka, urte guziko bazka kasikan egitten tzen neguko idorra biltzen zen miño, asitzen gifien gero bazka atetzen, artuk billu ta arto tartin asitzen giñen txabuxa atetzen, arbiya atetzen, martxun ondarrin, or do martxun benpen, gero apirila maiatza bittarte berriz ere dena andik manteintzen tzen.

*Galdera:* Arto urte txarretan zer itten zuten?

*Rosario:* Bueno, arto urte txartan aretxekin pasatu nolpattere. Aintzinko urteko sobrantia baldin bazeñ pixkot obekio ta bertzela zagon arekin pasatu; pientsorik etzen erosten ordun, azindak ta gioune ta.

*Galdera:* Zemant kilo biltzen zinttuzten urtin gutti gotti betti?

*Rosario:* Beno, lau milla kilo do, gutti gotti betti. Nik eztakik zemant billutzen zanen tzen, erraten tzuten gure aintzineko zarrak berreun erreldo arto berreun kilo do berreun erru arto biltzen tzirela.

*Galdera:* Artoburuk billu ta gero zoztorrakin ze itten zuten?

*Rosario:* Aitzurrakin bota itten gunun zozorra ta eskuz billu dena ta gero su man ta erre.

*Galdera:* Artua billu ondotikan ereiten zuten zerbait?

*Rosario:* Artua billu ondotikan youserez ez genun ercitten, ori itten tzen yorran bota; aziya botatzen zen yorratzin; txabusa ta arbiya ta zarta ta orik ta artua billu ta gero masalastuk biltzen tziren.

*Galdera:* Zein tzen zure lanik gustokuna?

*Rosario:* Nere gustokuna, lanik gustukuna arto ercetia gustatzen ziten niri. An zulatu ta azi ematten ta aritzia.

*Galdera:* Ta guttina gustatzen zizuna?

*Rosario:* Guttina gustatzen zitena zatten zen arto biltzia bizkarrin kar bar zatten baitziren denak itxera ta orrentxegatikan. Karretuko lana audiya zelkotz. Ta gero gottira billu ta egitten genun xuritu, dena txuri txuria kendu beyantzat ta gero patzen zen gottin zabal-zabal idortzko, burua idortzko. Gero otsailako ilberin erratten tzuten berex bar zatten tzela ta ordun itten genun artua berexi ta zakutan sartu, zakutan sartu, eskukin bereixten genun dena ta gero zakutan sartu ulitxik ez ittko, bakarrikan erratten zuten bertzela berexiz kero ulitxik...

*Galdera:* Itxeko aziya edo erosi itten zenuten?

*Rosario:* Itxekua creitten genun beti, oben oben obena, bururik edernari beti kenduta egitten genun azittkua espres berexita, beti itxekua ere egitten genun ta, gañekun, ez takik ze egiten genun gañekun artukin. Yan benpen aretik egitten genun ta azindak ere moldatu ere bai ta ordun ez zen pentsurik ta deuserez zatten... artuak zun lan audiya miño egitten ginttun ordun denak bertze makinarik ez tzentz eeskua bertzerik ta eskuz aritzen giñen al genun bezala; gero familia ere ttiki samarra izaten ginien.

*Galdera:* Bueno, uain arto kontuk utzi ta iratzi kontutara pasatuko gara. Iratxin noiz asten zinten ta noiz akautu?

*Rosario:* Asitzen giñen Arantzako bestak pasatu ta segidun ta gelditu egiten giñen iratzia ebakitz San Martintan.

*Galdera:* Nola mozten zenuten iratzia?

*Rosario:* Dena eskuz, bueno, igittikin mozten genun iratzia, ordun sega ez tzun inork ibiltzen ta egitten genun iratzia besapin, emen, biltzen genun ebakialin billu ta ebakialin billu ta ezpalak egitten ziren ta ek lurrin utzi ta berriz asi ta orrela ebakitz genun ta gero itten ginttun meta batzuk ta bertze trozo batzuk ederrak zamatu itten ginttun eta goitpetti amilka bota bide ixkiñera ta gero gurdia kargatu sei zama do zazpi do orrela. Itxera ekarri ta emen ere itxin itten ginttun metak eztakit zemant zortzi do amar do. Etxe ondun urbilgo izateko neguko, neguko aisgo zattko. Irazlayin itten tziren ibual berrogei, ibual geigo ibual guttigo. Nik eztakik zemant egitten ziren dentara biño orrela...

*Galdera:* Egun guziko yuaten zinten iratzira?

*Rosario:* Egun guziko yuaten zen. Goizin argiya asitzko atautxi zena, nere atautxi. Ta ama, berriz, nere ama yuaten tzen gosarikin, ta ni yoaten nintzen bazkarikin, izebak prestatu egiten zun bazkaria. Nik, berriz, itten nittun azindan bazkak ta itxera ekarri ta egin ta ekarri. Eta gero yuaten nitzen ni illundu arte irurek aritzen giñen ilundu arte.

*Galdera:* Iratzia zertarako erabiltzen zenuten?

*Rosario:* Iratzia ibiltzen genun beyari azpiyak egittko, ardiyari azpiyak egittko, itxera kartzen zenuna zerriyari ta gorotza ittko. Artua ittko re gorotza biar tzen. Belagayak ere gorotza izaten tzuten; abono gutti ibiltzen tzen ordun agitz; dena gorotzakin egiten tzen ta orrengatik.